

---

## **Euskadiko Parke Teknologikoak eta APTEK Europako azpiegitura zientifiko aurreratuenetako bat den CIC biomaGUNEren Irudi Molekular Plataformara lehen bisita gidatu irekia antolatu dute jende guztiarentzat**

---

- **Ate irekien jardunaldia Estatuko Azpiegitura Zientifiko eta Tekniko Bereziak (ICTS) ezagutarazteko APTEK bultzatutako “Berrikuntza Espazioak” izeneko ekimenaren barruan dago.**
- **Azaroaren 7an bisitak enpresei eta erakundeei zuzenduta egongo dira, eta ostiralean, hilak 8, Euskadiko Parke Teknologikoko Campus Donostian dagoen plataforma jende guztiarentzat egongo da irekita, aldez aurretik izena emanda.**

**2024ko urriaren 22a.** Euskadiko Parke Teknologikoak, Espainiako Parke Zientifiko eta Teknologikoen Elkartearekin (APTE) lankidetzan, Estatuko azpiegitura zientifiko aurreratuenetako bat ezagutzeko aukera eskainiko dio gizarteari datozen azaroaren 7an eta 8an: Euskadiko Parke Teknologikoko Campus Donostian dagoen CIC biomaGUNEren Irudi molekular eta funtzionalako plataforma.

APTEK bultzatutako “Berrikuntza Espazioak” programaren barruan dagoen ekimen horrek Europako instalazio zientifiko aurreratuenetako batean sartzeko eta, Estatuko Azpiegitura Zientifiko eta Tekniko Bereziak (ICTS) lehen eskutik ezagutarazteko aukera emango dio interesa duen edonori.

Agendak bi eguneko bisita gidatuak aurreikusten ditu. Azaroaren 7an, osteguna, plataforma enpresa eta erakundeentzat egongo da irekita, eta azaroaren 8an, ostirala, gizartearen txanda izango da. Biomedikuntzaren arloan abangoardiako azpiegitura zientifiko hori ezagutu nahi dutenek [www.parke.eus](http://www.parke.eus) webgunean argitaratutako [formularioaren](#) bidez erreserbatu beharko dute lekua.

Irudi Molekular eta Funtzionalaren Plataforma erreferentea da Europan irudiaren teknologia prekliniko molekularrean eta funtzionalean. Euskal Autonomia

Erkidegoan ez ezik, Estatuan ere orain arte sortu den irudi biomedikoaren plataforma teknologikorik handiena da instalazio hori. Bere teknika esperimentalen baturak –Erradiokimika, Positroien Emisio bidezko Tomografia (PET), fotoi bakarraren emisio bidez konputalizatutako tomografia (SPECT), ordenagailu bidezko tomografia (CT), erresonantzia magnetiko bidezko irudia (MRI) eta tomografia optikoa (OT)–, animaliategiarekin batera –nazioarteko AAALAC kalitate ziurtagiria duena–, instalazio hori Europa mailako erreferentzia zientifiko garrantzitsuenetakoa izatea lortu dute.

Besteak beste, irudi-unitateak nanomaterialen saiakuntzak *in vivo* egiteko aukera ematen du. Horrela, metro gutxi batzuetan, animaliategia, isotopo erradioaktiboak sortzeko aukera ematen duen ziklotroia, aztertu nahi diren molekuletara edo nanopartikuletara isotopo horiek eramateko erreaktoreak eta erradiokimikan, X izpian eta erresonantzia magnetikoan oinarritutako tomografia egiteko ekipoa daude integratuta.

CIC biomaGUNEK abangoardiako ikerketa egiten du kimikaren, biologiarene eta fisikaren arteko interfazean, eta arreta berezia jartzen du eskala molekularreko nanoegitura biologikoen propietateen eta horien aplikazio biomedikoen azterketan. Hamazazpi urteko ibilbidean, CIC biomaGUNE punta-puntako zentro gisa finkatu da estatuko eta nazioarteko panorama zientifikoan, biomaterialen arloko ezagutza sortzen duen eragile gisa. Horren ondorioz, argitalpen zientifikoak, patenteak, nazioarteko instituzio eta erakundeekiko lankidetzak eta zientzia-komunitatearen eta enpresa-sarearen zerbitzura dauden ekipamendu teknologikoa langile zientifikoak ditu.

---

**Informazio gehiago:**

Euskadiko Parke Teknologikoa  
Prensa Saila  
[prentsa@parke.eus](mailto:prentsa@parke.eus)  
T 94 403 95 00